

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



KORRIKA BADATOR

Apirilaren 13an igaroko da Andoaindik eta Urrietatik. Bi herrietako batzordeak Korrika girotzeko lanean murgildu dira. / 2-3

Aurrerapausoa hondakinen bilketan

Errefusarako edukiontzi berriaren txertaketarekin, otsailean hondakinak bereizteko sistema aldatu zuten Andoainen. Lehen emaitzen arabera, birziklaketa %60ra iritsi da / 7



Gipuzkoako bertsolari txapelketan parte hartuko duela iragarri du Ion Beloki andoaindarrak / 5



Jon Jauregi Urrietako margolariari elkarrizketa sormenaz, kultur adierazpidez eta, oro har, bizitzaz / 10



Ainhoa Jauregi urnietarraren garaipen berria Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan / 13



www.aiurri.eus



Webgune berria udaberria iristearekin batera

Hiru hitzordu nagusi Urnietan



Korrika postua San Juan plazan, duela lau urteko edizioan. AIURRI

Martxoak 22 eta apirilak 5 | Sentsibilizazio kanpaina

Zubitxo plazan Korrika postua ipiniko dutela iragarri dute. Korrika Laguntzaile izateko aukera eskainiko dute, baita arropa erostekoa ere. Herri afarirako txartelak bertan erosi ahal izango dira.



Egape DT-k dantza ikusgarria eskaini zuen, 2017ko edizioan. AIURRI

Martxoak 31, igandea | Kalejira eta koreografia

Aiurrik youtuben duen kanalean ikus daiteke 2017ko ediziorako Urnietako dantzariak egin zuten koreografia. Ikusgarria da. Aurtan errepikatzeko gogoz daude. Martxoko azken igandean izango da.



Korrika txikia ez ohiko ekitaldia da ikasle gazteentzat. AIURRI

Apirilak 12, ostirala | Korrika txikia

Ostirala izanik, herriko ikastetxeen parte-hartzea handia izango dela espero da. Egun borobila izango da, kantu kalejirarekin eta herri afariarekin osatuko dena. Goizaldean iritsiko da Korrika.



Konturatu orduko, bertan da Korrika

Korrikaren iritsiera girotzeko Andoaingo eta Urnietako Korrika Batzordeak lanean ari dira. Asteburu honetarako lehen hitzorduak iragarri dituzte Urnietan. Andoainen, berriaz, apirilera utzi dituzte Korrikari lotutako hitzordu guztiak

Erredakzioa ESKUALDEA

Gaueko ordu txikietan igaroko da Korrika, Urnieta eta Andoainen barrena. Apirilaren 12tik 13rako gauean izango da, 02:00ak pasatxo direnean. Gauaren iluntasunean, euskararen aldeko oihuak eta urratsak nabarituko dira bi herriguneetan. Antolatzailerentzat ordutegia jakitea

garrantzia handikoa da, horren baitan antolatzen baitira gainerako ekitaldiak. Gau partean igaroko denez, aurtengo edizioan Korrika Txikia egingo dute bi herrietan. Haur eta gaztetxoek Korrikaz gozatzeko aukera izango dute. Apirilaren 12an, ostiralararekin, goizean antolatuko diren ekitaldi banatan euskararen alde

adieratzeko, abesteko eta korrika egiteko aukera izango dute. Egitaraua antzekoa izango da Andoainen eta Urnietan, ostiral iluntzean bi herrietan kantu kalejirak eta herri afariak iragarri baitituzte. Afaria aukera ona izango da, Korrika iritsi arteko itxaronaldia betetze aldera. Konturatu orduko bertan da Korrika.

Peto potea, Korrika Txikia eta Korrika, hitzordu nagusiak Andoainen



2017ko peto potea. AIURRI

Apirilak 4, osteguna | Peto potea

Lekukoa eramango dutenen bilkura izango da. Herrian zehar kalejiran ibili eta gero, bakoitzari dagokion petoa banatuko zaio. Joan zen Korrikan antolatu zen ekitaldi arrakastatsua errepikatuko dute.

Martxoak 22-Apirilak 12 | Korrikari lotutako materiala

Plazaola Kaleko 2. zenbakian dago AEK euskaltegia. Bertan sartu eta atarian aurki daitezke kamisetak eta gainerako merchandising produktuak. 09:00tatik 19:00tara zabalik dago.



Korrika Txikia Andoainen barrena, 2013. urtean. AIURRI

Apirilak 12, ostirala | Korrika txikia

Goizean zehar herriko hiru ikastetxeetako ikasleek Goikoplaza eta Zumea plaza arteko ibilbidea egingo dute. Arratsaldea Kantujira taldekoek girotuko dute. Eta gauean, afaria Bastero Kulturgunean.

Apirilak 13, larunbata | Kalejira eta Korrika

Ostiraletik larunbaterako gauean iritsiko da Korrika Andoainera, Urnieta zeharkatu ondoren. Goizeko 01:00tarako kalejira egin nahi dute. 02:30ak aldera iritsiko da Korrika Andoainera.

HITZORDUAK

**URNIETA
OSTIRALA 22**

19:00 Korrika postua ipiniko dute Zubitxo plazan.

IGANDEA 24

17:30 Tomaxen abenturak Saroben.

IGANDEA 31

11:30 Musika eskolako ikasleen kalejira, Guriatik hasita.

12:00 Egape DTren koreografia, pintxo eta sagardo dastaketa.

**APIRILA
OSTIRALA 5**

19:00 Korrika postua ipiniko dute Zubitxo plazan.

OSTIRALA 12

11:30 Korrika txikia eta ekitaldia.

19:00 Kantujira kalez kale.

21:00 Afaria Oianumen. Ondoren, Urnietako bertso eskolako ikasleen saioa.

02:03 Korrika Urnietara iritsiko da.

**ANDOAIN
APIRILA
OSTEGUNA 4**

19:00 Peto potea herrigunean, lekukoa eramango dutenekin.

OSTIRALA 12

10:00 Korrika txikia eta ekitaldia.

19:00 Kantujira kalez kale.

21:30 Afaria eta musika Basteron.

01:00 Kalejira herrian barrena.

02:30 Korrika Andoainera iritsiko da.

**martxoak 29
ostirala
19:00etan**

Basteroko ekitaldi aretoan.

EHBilduren hautagaitzaren aurkezpena

Andoaindarron ongizatearen alde lanean **ehbildu**

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

Eutanasia: maitasun aldarria

Duela gutxi zendu da Portugaleten Maribel Tellaetxe. Alzheimerrak jota zegoen eta esana zuen, konzientzia galdu eta gorputzak erantzuteko gaitasuna galtzen zuenean, momentu horretan, hil egin nahi zuela. Hori dena, azken borondateetan idatzia zuen. Erabakia hartu zuen eta, zein heriotz duinagorik norberak erabakitakoa denean baino.

Erabakia, ordea, gaurko legeek ez dute errespetatu. Senideek ongi adierazten zuten: "Legeek nire ama bere borondatearen aurka bizitzera behartu dute, eta duintasunez hiltzen ukatu egin diote".

Izan ere, Maribel ez da hil berak nahi zuen bezala: denboran zein forman, azken momentuko gaixotasun baten ondorioz baizik. Familiartekoek prentsa agerraldian adierazi zuten, naturak eraman du: "Legeek ukatzen ziotena naturak eskaini dio". Nik esaldi horri beste honakoa erantsiko nioke: Naturak maitasunez jokatu du, legeak, aldiz, krudelkeriaz. Eutanasia= heriotz ona, maitasun aldarria da, eta Maribelen familiartekoek horixe nahi izan dute. Hots, eutanasia legeztatzea maitasun ekintza hori garatu ahal izateko. Baina, uko egin diete. Ez dut zalantzarik: maite dugun pertsonak, edozein delarik, aurretik idatzita edota kontziente delarik hil

nahi duela eskatzen digunean eta pertsona horrekiko benetako maitasuna badugu, nork ukatu hiltzen laguntzea. Garbi dago hiltzen laguntzea ez dela krudelkeria, delitua, maitasun ekintza baizik. Maribelen borondatea eta nahia argia zen: "Ez dut bizi nahi duintasunik gabe". Argiago ezin adierazi. Baina Zigor Kodeak, gaurkoak behintzat, herritarrak sufrimenduan bizitzera behartzen ditu.

Kontua da, inkesta guztien arabera, populazioaren gehiengoa eutansiaren despenalizazioaren aldekoa dela. Horrelako lege bat onartzeak ez du esan nahi bidea ireki eta denek bide horretatik joan behar dutenik. Horretarako daude protokoloak eta arauak, eta batez ere, eta garrantzitsuena, norberaren hautua dago. Heriotzak forma eta modu desberdinak ditu, baita gaixotasunak ere. Baina lege bat egiten bada, norberak aukeratzeko eskubidea bermatzen duena, ba hori errespetatu egin beharko da. Beste era batera hil nahi duena ere errespetatu beharko

"MARIBEL TELLAETXEAK HIL EGIN NAHI ZUEN, AHOTZ ETA IDATZIZ GARBI UTZI ZUEN"

den bezalaxe. Maribelek hil egin nahi zuen, ahoz eta idatziz garbi utzi zuen; familiartekoek maite zutelako lagundu nahi zioten, baina eutanasia despenalizatzeko lege bat ez dagoenez, bere borondatearen aurka sufrimenduan bizitzera behartu dute. Eta Maribelena ez da kasu bakarra; gaixotasun degeneratiboak dituzten asko eta asko heriotz duina aldarrikatzen ari dira. Hor dago krudelkeria; ez dela pertsonaren eskubidea errespetatzen.

Eutanasia zigor bidetik kentzeko, Ahal Dugu-Ezker Batua izan zen proposamena Kongresura eraman zuen lehena, baina beste zenbait

alderdik protagonismoa bereganatu nahi eta ez zioten jaramonik egin. Bidean geratu zen. Ondoren, PSOEak aurkeztu eta proposamenak Kongresuko mahaiaren kontrola pasa zuen. Eskuinaren eraginez, paper artean galdu eta ez du biderik egin. Egoera nahasi honetan ez dut argi ikusten zer gerta daitekeen. Dirudienez, sozialistak legea aurrera eramateko prest daude beti ere beste alderdi batzuekin gobernu aurrerakoi bat osatzeko gai badira. Eskuinak ez du heriotzari buruz hitz egin nahi.

Bide honetan, Maribelen familiartekoek 273.000 sinadura bildu dituzte eutansiaren errugabetzea eskatuz. Kongresuko atarian eskatu dute eutansiaren eta

hiltzen laguntzearen despenalizazioa. Euren esanetan, populazioaren %85ak eutanasia arautzea ondo ikusiko luke. Medikuen artean ere gehiengoa da horren alde agertzen direnak. Bizkaiko medikuen elkargoan %86 dira alde daudenak, eta %6,2 kontra.

Bukatzeko, Maribelen familiartekoei esan nahi nieke aspalditik badela estatu mailan duintasunez hiltzeko eskubidearen aldeko elkarte bat, zeina erkidegoetan zabalduz dagoen eta eutanasia legeztatzei ahaleginetan diharduen. Zorionak amaren eta emaztearen gaixotasunetik abiatuz egiten ari diren ekarpenagatik.

Eta Maribeli: Zaude bakean, eta adiorik ez!

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzaila: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia.
idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goleña Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:

ALJATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan parte hartuko dut"

ION BELOKI ARRUTI ANDOAINGO BERTSOLARIA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Hurria-Sahara eta Punttuka elkarteek urteroko bertso saioa antolatu dute. Martxoaren 31n izango da, Basteron. Sarrerak dagoeneko salgai daude Delgadon, Ernaitzan, Stopen eta Urratsen.
Hurria Sahararen aldeko bertso saioan gai-jartzaile lanetan ikusi zaitugu aurreko edizioetan. Oraingoan, berriz, bertsolarien artean iragarri zaituzte. Erronkarako prest?

Aurten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa ospatuko da. Duela lau urte, parte hartu ala ez, zalantzan ibili nintzen. Orduko hartan ez nintzen animatu, baina oraingoan bai. Probatze aldera, ondo etorriko zait Basteroko saioa. Txapelketari begira, nire burua estutzeko aproposa izango baita.

Punttuka bertso eskolakoekin hitz egin eta gero, kantuan ariko naiz. Eta Unai Ormaetxea gai-jartzaile bezala ariko da. Udazkenean Goiburun egin genuen saioan oso lan txukuna egin zuen. **Erronka handia, Andoainen bertan eta bertsolari handien ondoan.**

Halaxe da, eta bertigo piska bat badudala aitortu beharrean nago. Erronka da, eta ikusiko dugu zer moduzko saioa ateratzen zaidan.



Beloki bertsolaria kantuan arituko da martxoaren 31n, Sahararen aldeko saioan. AIURRI

Ahal dela, beste bost kideekin batera kantatuko nuke. Bakarkako saioa saihestu nahiko nuke, hasiera batean. Andoaingoa, maiatzera begira, nire bertsokera lantzen jarraitzeko ariketa modukoa izango da. **Zirikatuko zaituzte, puntutako saioetan...**
Ziur! Unai Muñoa herriko ikastetxeetan bertso irakasle lanetan aritzen da eta lasai hartzeko aholkua eman dit. Bertsoa osatzeko gai naiz, eta hortik aurrera ea saio ona ateratzen den.

Andoaingo ikuspegitik pozgarria da herriko bertsolari bat berriro lehian ikustea.
Ardura handia ere bada. Andoainen azken hamarkadatan egon diren bi bertsolariak handiak izan direlako. Jokin Sorozabal Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalera sailkatu zen, eta Aitor Mendiluze azken edizioeko txapeldun-ordea da.
Oso txiki sentitzen naiz bi izen horien alboan. Poz hori ulertzen dut, eta pena gehien Eskudero anaiak lehian ez

ikusleak ematen dit. Nirekin ibili dira beti, bapatekotasuna eurekin ulertzen dut. Herriartekoan elkarrekin parte hartu dugu beti. Ez dira animatu, besteak beste, pilota eskolako arduratan murgilduta daudelako. Pena hori badut, baina halere haien laguntza izaten ari naiz.

Prestaketa saioetan zabitza, beraz.
Harituz taldekoekin elkartzen gara, asteazkenero. Lanketa egiten ari naiz, eta oraindik ere lanketa gehiago egin beharko dut. Oraingo txapelketara tentsio handirik gabe noa. Ikusiko dugu hurrengo asteetan. Txapelketara nire burua probatzera noa, eta ikusiko dugu noraino iritsiko garen. **Noiz ekingo diozu txapelketari?**

Maiatzean izango da, Errezilen. Beste bost lagunekin batera arituko naiz kantuan. Horietako bi ondo ezagutzen ditut: Adur Gorostidi abaltzisketarra eta Imanol Irazustabarrena alegiarra. Jokin Uranga azpeitiarrak ere saio berean abestuko du. Baita Andoni Mujika urnietarrak ere. **Animo asko jaso al dituzu inguruan?**

Etxeok oso lotsatiak dira, nahiz eta gurasoak eta anaia bertsoa osatzeko gai izan. Sufrituko dute, eta ez dut uste ni ikustera etorriko direnik. Ea noraino iritsi gaitzkeen. Arantza hori banuen sartuta, eta proba egin nahi dut.

Prestatzen hasi beharra daukat. Martxoaren 30ean Irundurriko bertso bazkarian abestuko dut, eta biharamunean Basteron.

HAU ERE BADUGU!

Sistema berriaren lehen datuak Andoainen



Ostiral arratsaldean Andoaingo Udalak hondakinen bilketarako sistema berriaren datuak eskaini zituen, eta Aiurrik horiei buruzko albistea sarean zabaldu zuen. Irismen handikoa bilakatu zen berehala, eta bat baino gehiago pozik agertu zen. Ingurumenaren alde parte-hartze aktiboa duten herrikide ezagunek iritzia eman zuten. Facebooken Julen Begiristainek zera idatzi zuen: "Eskerrak batez ere urtetan anonimatotik lanean aritu diren herritarrei, haien ekimenarik gabe ez ginen inoiz iritsiko hontara. Orain datu hori hobetzen saiatu behar dugu. Zorionak guztioi!". Julen Lorenzok hobekuntzarako aukerak ikusten zituen: "Hobetu beharra badago ere, datu oso ona dela uste dut, kontuan hartuta otsailaren 11n itxi zirela edukiontzia grisak".

Jende Xumea, gazte talde baten ekimena



Andoaingo LSB ikastetxeko Jende Xumea ekimeneko gazteak Boliviana doaz udan, nazioarteko kooperazio egitasmo batean parte hartzera. Zehazki, hango umezurtze batean laguntzera. Bidaia ordaintzeko materiala salgai ipini zuten, joan zen asteburuan. Albistek zabalkunde handia izan du.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

andoainDARRA
euskaraz

Outlet kalean, Salkin elkartearen ekimenez

Joan zen ostegunean eta ostiralean, Andoaingo Salkin merkatarien elkarteak Outlet kalean ekimena aurrera eraman zuen. Herriko kaleak girotzearekin batera, erosle askoren arreta bereganatu zuten bi egunez

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bezeroen esku aukera bikainak eskaintzea eta tokiko merkataritzari ikusgarritasuna eskaintzea izan ziren Outlet kalean ekimenaren helburu nagusiak. Parte hartu zuten dendarien artean, ekimenari jarraipena emateko gogo nabari da.

Maripi Herce, Xare oinetakoak

"Eguraldiak lehen orduetan ez digu gehiegi lagundu. Bezeroek ondo hartzen dute, eta esango nuke batzuk outlet-a zabaltzeko zain izaten direla. Horrek eragozpen bat sor dezake, eroslea beti outlet edo beherapenetan erostera ohitzea".

Loli Martos, Durazno

"Ekimenarekin guztiz bat nator, kontsumitzaileak kontzientzia hartzeko balio duelako. Ezinbestekoa da produktuak kalean salgai jartzea. Denda barruan soilik ipiniz gero, barrura sartzea kostatzen zaie. Ostegun goiza geldo samarra izan da, baina arratsaldean gehiago animatu da. Bereziki, txarangari esker. Hemen herriaren goialdetik birritan igaro dira. Alde horretatik, oso ondo".

Ana Zalakain, Izeia

"Herriarrak mugiarazteko ekimena ondo dago. Bi egunetan parte hartu dugu outlet ekime-

nean. Guretzat nahikoa. Bezeroek ondo hartu dutela ikusi dugu, gogoko dute ekimena. Salkin elkartetik horrelako ekimenei eustearen aldekoa naiz. Eta gehiago egin behar dira, merkatariek bestela ez dugu ikusgarritasunik lortzen".

Maria Jesus Otegi, Gamer

"Kanpoko postutxoak prestatzen hasita, bi egunetan parte hartu dut. Jendeak oso ondo hartzen ditu horrelakoak. Nire kasuan, gauza txiki asko eskaintzen ditut. Produktu asko erdi prezioan jartzen ahalegindu naiz. 2, 3 edo 4 euroko eskaintzak oso gustura hartzen ditu erosleak".



Ana Zalakain, Izeia. AIURRI



Loli Martos, Durazno. AIURRI



Maria Jesus Otegi, Gamer. AIURRI



Maripi Herce, Xare. AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Astarbe 943 551 527 Astigarraga	
Gaztañaga 943 591 968 Andoain	
Larre-gain 943 555 846 Ereñozu-Hernani	Hotel K10 943 337 357 Umieta
Mizpiradi 943 593 954 Andoain	Amasa-Villabonako Udala 943 692 100
R. Zabala 943 690 774 Aduna	Andoaingo Udala 943 300 830
Sarasola 943 690 283 Asteasu	Urnietako Udala 943 008 000
Sagardoa Route 943 336 811 Gipuzkoa	

Bilketa sistema berriak datu onak eskaini ditu

Datu orokorreki begira, Andoaingo herriak hondakinen bereizketan hobekuntza nabarmena egin du. Aspaldian amesten zen %60ko kopurura iristea lortu da, sistema berria martxan jarri eta lehen neurketan. Zailena egina dagoela dirudi

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eta hala eta guztiz ere, emaitza pozgarria izanik ere, zer hobetua badago. Organikoaren trataera egokia izan behar duela izan azpimarratu du Udalak: "Oso garrantzitsua da organikorako poltsa berezituak erabiltzea. Udaletxean eskuragarri daude, dohai-nik". Bestalde, bada oraindik txartelik erabiltzen ez duen herri-itar kopuru txiki bat. Ohartarazpena luzatu diete: "Txartela erabiltzea eta hondakinak edukiontzien barruan sartzea derri-gorrezkoa izateaz gain, errespetuzko jarrera da". Andoaingo Udalak andoaindar gehiengoaren jokabidea txalotu du.



Organikoari eta errefusari bideratutako edukiontzi berriak, Olagainen. AIURRI

Gaikako bilketa Andoainen



Gaikako bilketa: %18,4ko igoera	Errefusa: %37ko jaitsiera
• 2018ko otsailean: %44,73. • 2019ko otsailean: %63,20.	• 2018ko otsailean: 191.240 kg. • 2019ko otsailean: 120.000 kg.

Ontzi arinak: %26ko igoera	Organikoa: %97,6ko igoera
• 2018ko otsailean: 30.132 kg. • 2019ko otsailean: 38.422 kg.	• 2018ko otsailean: 36.330 kg. • 2019ko otsailean: 71.800 kg.

Hobetu beharrekoak

Poltsa organikoen erabilera: "Oso garrantzitsua da poltsa berezituak erabiltzea".	Txartelaren erabilera: "Hondakinak edukiontzien barruan sartzea derrigorrezkoa da".
---	---

SAHARAAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean
2019 / 3 / 31 eguerdiko 12:00etan

Ion Beloki
Unai Agirre
Alaia Martin
Unai Muñoa
Aitor Mendiluze
Maialen Lujanbio

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

ANTOLATZAILEAK

Ekluria Sahara
S.E.A.D-en lagunen elkarte

PUNTUKA
BERTSO ESKOLA

LAGUNTZAILEAK

AXA
Arandara arteakirritza

AIURRI

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua

urkiola

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats

6.00€

NAFAR HEGOALDEKO UZTA
ESKUTIK ESKURA

5 URTE

MAITE DUGUNA
ELIKATZEN

KON

EKO

MARTXOAK 7-22

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA - 5 LITROKO BIDOIETAN -
ETA KORTSERRAK - 12 ORTEITAKO SORTETAN - EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN

ESKATUAK: WWW.ERRIGORA.EUS

ERRIGORA

ZER ESKA DEZAKET? NOIZ JASO ETA ORDAINDU BEHAR DUT?

MARTXOAK

PRODUTU GUZTIAK
ESKATU

APRILA

OLIBA ETA KAMISETA
JASO ETA ORDAINDU

MAYATZA

KORTSERRAK ETA ARROJA
JASO ETA ORDAINDU

Hartzearen 7tik 22ra olibo-olio birjina extra, kortserrek (12 orteko sortetan) eta arroja (onena kalakerik) eskatu ahal izango duzu, ekologikoki edo espelologikoki, baina Erri Goraren kanpantxak ere, jaso, ordain, lehenengo eguneko elkarrekin eta ordaineko produktua bakoitzak jasotzen ari den bakoitzak dago. Erri Goraren kanpantxak jaso dituzkete orain jaso dezakete. Olibo-olio birjina extra, kortserrek eta arroja, baina ez duzu eskatzen produktuak eskaintza, edozein kasutan, bertako eta kanpantxak bikoiztu olibo-olio birjina extra jaso dezake.

ESKATUAK: WWW.ERRIGORA.EUS

ERRIGORA KAMISETA



Sandra Barrenetxea, Esti Mujika, Toñy Landa eta Soledad Ruz, flamenko jaialdiaren aurkezpenean. AIURRI

"Emakumearen oihua" flamenko jaialdia

Ostegun honetan flamenkoaz gozatzeko aukera izango da Basteron. Zuen elkarteak eta Udalak elkartasunezko izaera duen jaialdia antolatu dute. "Emakume adoretuak, emakume solidarioak" izenburupean, Jaizkibel konpainiari aitortza egin nahi diete

Xabier Lasa ANDOAIN

Flamenko jaialdiaren bigarren edizioa izango da. Taula gainean ezagunak diren hainbat dantzari eta musikari arituko dira, Hondarribiako Jaizkibel konpainia parekidearen alde antolatu-tako ekitaldian. Udalak, Zuen emakumeen topaguneak eta "El Duende de la Sole" flamenko konpainiak antolatu dute jaialdia. Jaialdiaren aurkezpenean Esti Mujika kultura zinegotziak adierazi zuenez, "Udala saiatzen ari da Martxoak 8aren inguruan egitarau zabala eskaintzen. Emakumeen nazioarteko eguna ospatzeaz gain, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta jendarte parekide baten aldeko aldarrikapenak zabaltzeko egokia izaten da. Gero eta proposamen gehiago ari zaizkigu luzatzen azken urtetan, eta horietako bat flamenko jaialdia da, Zuen elkartearen eskutik. Egitarauaren helburuekin ederki datorren kultur ikuskizuna da".

Toñy Landa Zuenako lehendakariak jaialdiaren filosofia zein den azaldu zuen: "Emakumeen oihua leloa darama jaialdiak, eta iaz lehenbiziko edizioa egin zen Basteron. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen aldekoa izan zen, eta kausa haren alde bideratu zen jasotako dirua. Hondarribiako Jaizkibel konpainiarentzat izango dira aurtengo irabaziak, urteak baitaramatza emakumeek jaiak berdintasunean gozatu ahal izateko borrokan. Alde horretatik, egokia ikusi dugu aurtengo jaialdiari *Emakume adoretuak*, *emakume elkarkideak* izenburua eranstea".

"El Duende de la Sole" izeneko Donostiako flamenko konpainia jaialdiaren antolakuntzan burubelarri aritu da, iaz bezala. Bere zuzendaria den Soledad Ruzek adierazi zuenez, kalitate handiko jaialdia osatu ahal izan da: "Lehen mailako dantzariak datoz Basterora. Jaialdiak, batetik, lehen mailako dantzariak bilduko ditu,

hala nola, Kelian Jimenez, Antonio "El Cancu", Kilino Jimenez, Jolis Muñoz edo Rafael Jimenez. Eta bestetik, gertukoak diren artista amateurak izango ditugu: Dario Vallecillo, Ruben Jimenez, Jose de Pasaia, Nerea Munilla, Analaya Bellidance, Zuen elkarteko sevillana taldea edo El Duende de la Sole konpainia".

Dantza ez ezik, musika emakumeen jaialdia izango da: "Pianoa, caju-na, kitarra... gurekin izango da, esate baterako, Sonakai taldeko Ruben Jimenez perkusio-jotzailea". Bestalde, film laburra pantailaratuko dute, Alberto Azcona eta Mentxu Arrietaren eskutik.

Sarrerak, 10 eurotan salgai

Atarian eta Zuen elkarteak Extremadura kalean duen egoitzan salgai daude. Egunean bertan ere leihatila irekiko da. Bestalde, antolatzaileek 0 ilara ipini dute, nahi duenak ekarpena egin dezan: 2095 5039 91 10 6905 2230 (Kutxabank).

Urnietako toki kuttunen argazki lehiaketa

Txanbolin txistulari bandak, Anabas musika taldeak eta Egape dantza taldeak Soinuen Begiradak egitasmoa sortu dute. Urnietako ondarea balioan jarri nahian, argazki lehiaketa antolatu dute. Sei argazki aurkeztu behar dira, denera

Erredakzioa URNIETA

Deitzaileek Urnietako sei leku esanguratsuren argazkiak ateratzeko lehiaketa martxan jarri dute. Horietako bost toki, hala-beharrez, antolatzaileek zehazturikoak izango dira: Eteneta, Muniskue (Mulisko), Sanson harria, Adarra eta Buruntza. Seigarren argazkia lehiakide bakoitzaren esku utziko dute: "Norberak Urnietan duen txoko maiteren bat islatu beharko du". Sari-banaketa uda ostean egingo dute. Era berean, lehiaketara aurkeztutako argazkiekin erakusketa iragarri dute. Parte-hartzea zabalik dago, datorren ekainaren 24ra arte.



Antton Jauregi eta Aitor Regillaga, lehiaketaren afitxa eskuetan dutela. AIURRI



Eteneta. URNIETAKOUDALA

Gazte eta helduen mailako sariketa

Sariak
Helduak:

- Bilduma onena: 250 euro.
- 2. bilduma onena: 100 euro.
- 3. bilduma onena: 50 euro.
- Argazki onena: 50 euro.

Gazteak:

- Bilduma onena: 50 euro.
- 2. bilduma onena: 25 euro.

Lana aurkezteko:

- Formatua: JPG.
- E-posta: soinuenbegiradak@gmail.com
- Ipini beharreko datuak: lizen- abizenak, herria, adina eta kontakturako emaila.
- Epea: Ekainak 24.
- Sari-banaketa ekitaldia eta erakusketa, irailean.

Web Irudiak Bideoak

2019.3.21

TOKIKOM

www.aiurri.eus



Webgune berria udaberria iristearekin batera

Andoni Urbistondo URNIETA

Plazera da ideiak garbi izan, eta horiek azaltzeko zailtasun gutxi duen herritarrek elkarrizketatzea. Jon Jauregik badu, gainera, beste herrikide askorekin alderatuta, ezberdin egiten duen zerbait (42 urte). Ez hainbeste enpresa bateko gerentea delako, baina bai hamarkada oso bat musika talde bateko gitarra-jole izan eta Espainian barrena rock&roll-aren sekretuak ezagutu zituelako. Edota pinturari esker espero ez zuen arrakasta lortzen ari delako. Azken urteetan pinturan bilatu baitu buruko atsedena, pintura nekea sortzen ez dion sormena eta askatasuna baita berarentzat.

Anitz eta Euriren aita da Jon, eta familia-enpresa bateko gerentea da. Kamioien balazten osagaiak ekoizten dituen Ferjau enpresa. "Istorio polita du enpresak. Aitona zenak, Donostia-ko alde zaharrean, sagardotegia jarri zuen, baina gerra zibilean komeriak izan zituzten, eta halako batean tornu bat jarri zuten sotoan. Ondoren, egun dagoen enpresa etorri zen. Aurrena Andoainen, eta gero Ergobin. Gazte-gaztetatik hasi nintzen aitaren enpresan lanean, biltegi-ko langile soil aurrena, gerente orain, lanpostu guztietatik pasa eta gero". Informatika ikasten hasi zen, "beti ere enpresari begira, baina urtebete iraun nuen unibertsitatean. Arte Ederrak ikasteko asmoa nuen, baina gurasoei ez zitzaion ondoegi iruditu nire asmo hura... enpresan baliagarria izan zitekeen ikasketaren bat egitea nahi zuten".

Azken hamar urteetan enpresako ardura bizkar gain hartu du, eta horrek, "halako antsietatea eragin dit. Ardura handia da, beti adi egon beharra erabaki zuzenak hartzeko". Egun dozena erdi langile ditu enpresak, baina gehiago ere izan dituzte. "Hornitzaileak, bezeroak, langileak, administrazioa... gerentzia batek adar asko ditu, eta denak ondo egin behar dituzu, enpresa bideragarria izan dadin. Oreak behar da, pieza guztiak ondo uztartzea elkarrekin, eta ni bereziki perfekzionista naizenez, ba egunerokoa oso nekeza egiten da". Urte batzuk atzera pieza guztiak enpresan bertan ekoizten zituzten. Egun atzerrian ekoizten da gehiena, "hemen baino merkeagoa delako. Gurean

Sormenaren morrontzan kateatuta bizi den artista

Familia enpresa bateko langile, 25 urtez, eta horietatik gerente azken hamar urteetan, enpresak irauteko xahutu duen sormena erantzukizunik ez duten beste sormenetan murgilduz bilatu du patxada Jon Jauregi urnietarrak. Kirola, musika, pintura...



Jon Jauregi urnietarra Frida Kahloren erretratua alboan duela. JONJAUREGI

"URNIETAN BADAUDE SOZIALKI JAIKI ETA GAUZA INDARTSUAK EGITEKO ARRAZOIAK, BAINO JAI DAGO"

"MIKRO INDIVIDUALISMOAREN ONURETAN ERORI GARA DENOK, ETA KITTO"

ekoiztea ez da errentagarria, eta komertzializazioa dedikatzen gara gehienbat orain. Mentalki atsedetik hartzen uzten ez dizun zeregina da. Inoiz ez da bukatzen, beti duzu buruhausteren bat, eta horrek jan egiten zaitu. Batez ere krisi garai gogorretan. Itxieraren mamua ere nahiko gertu eduki izan dugu, baina pasa da. Etorriko da beste krisialdiren bat, hori ziur, baina azkenekoa pasa genuen, eta gaitzerdi".

Gestio ardura batzuk partekatzen hasi da orain gutxi, baina bere lan eredia garbi du: "Gerente batek ezin du arazo txikiengatik etengabe borrokan aritu langileekin, saiatu behar du bakoitzari bere lana garatzeko baliabideak ematen sistemak bere kabuz funtziona dezan, gerentea uneoro gainean egon gabe". Gerente eta arduradun guztiek "Jaten dituzte marroiak. Halakorik egiten ez duen nagusirik ez dut ezagutzen. Gerentea pieza guztiak enkajatzeko saiatu behar da, dena koordinatzen, arazo txikiak saihestuz eta distantzia bilatuz, begirada ahal den garbien mantenduz. Ni prozesu eta sistemak sortu zalea naiz, sistema horrek bere kabuz aurrera egin dezan. Baina arazoak ez dira desagertzen... Hornitzaile bat desagertu egin daiteke, bezero garrantzitsuren bat galdu dezakezu, langileren batek kale egin diezazuke...".

Gerentziak eragindako nekea betikotu egin daitekeela dio, zintzo: "ez duzu atsedetik hartzen, eta bizitza kalitatea txartu egiten da. Baina esan bezala, konpromisoak, gauzak ondo egin nahi izanak albo kalte hauek ditu. Nire kasuan, eta edonoren kasuan". Ihesbideren bat bilatu zuen arte. Pintura. "Orain dela sei bat urte izango zen. Ez naiz geldirik geratzen den horietakoa, aktibitatea behar dut, eta arteak ematen dit. Enpresan zerbait gaizki egiten baduzu, erantzukizuna onartu behar duzu. Artean ez, artean zerbait gaizki egiten baduzu, ba hor geratzen da. Sormena oso garrantzitsua da bi alorretan, baina artean sormena askoz ere askeagoa da. Eta askatasun hori oso lagungarria izan zait laneko ardurak perspektiban jartzeko, neurrian baloratzeko".

Pinturan murgilduta dagoenean bere sistemak, lan egiteko modu propioak sortzen ditu, eta horiek eraginkorrak direla ikusten badu, "lanean ere aplikatzen saiatzen naiz. Arazoei buelta ematen lagundu dit pinturak. Egoerei buelta ematen ikasi dut. Arazo baten aurrean, honi buelta emateak soluzioa ikusten lagun zaitzake. Pinturan sistema hori erabili izan ez banu, agian ez nintzateke jabetuko lanean ere metodologia hori erabil nezakeenik. Koadro abstraktu bat oreka bat bilatzeko ariketa sakon bat da, azkenean. Jende askok galdetzen dit: 'Zer da koadro hori, Jon'. 'Nire oreka', erantzuten diet".

Gitarra-jolea Materia taldean

Pintura baino lehenago, ordea, beste ihesbide batzuk etorri ziren: "Lehena kirola izan zen: judoa, pilota, txirrindularitza... Gipuzkoako Txapeldun ere izan nintzen judoan. Gero, jabetu nintzen genetikoki nire gorputzak ez zuela askorako ematen, baina oso lehiakorra nintzen". Orduan musikara egin zuen jauzia. "Ez nintzen oso dohatsua, baina hamarkada oso bateko bidea egin genuen Materia taldearekin. Gitarra jotzen nuen, eta gauza on batzuk egin genituen, ez uste: Villa de Bilbao lehiaketan Euskal Herriko talde onenaren saria irabazi genuen, München Olinpiar estadioan jo, Hamlet taldearen hasierako kantari Espainian barrena egin zuten kontzertu sorta batean, lau disko



"Nire lehentasunak familia, enpresa eta pintura bilakatu dira". Jon Jauregi kafetegian, bere artelanak paretan zintzilik daudela. AIURRI

kaleratu, horietako bat Oihuka argitaletxearekin...".

Musikan profesioa barrutik nolakoa zen ezagutu zuten, "nahiz eta ez ginen profesionalak izatera iritsi. Trikimailu asko, faltsukeria ugari... gehiegi gauza onerako". Musikak betirako gaitza ere utzi dio, tinnitus ize-nekoa. "Halako burrunba bat da, buru barruan dagoena, betirako, garuneko gaitza delako. Kontrolatzen ikasten ez baduzu, nekagarria oso. Antsietate handia sor dezake". Orduan, baina, alaba zaharrena jaio zen, "eta alaba eta musika bateragarriak ez direnez, musika albo batera utzi eta pinturan murgildu nintzen". Ez pentsa, dena den, musika erabat utzi duenik, orain tronpeta ikasten ari baita herriko musika eskolan.

Pintura azken sei urteetan

Ondo gogoan du, halako batean, alabarentzat margo batzuk iritsi zirela etxera, "klara edo klario-

na antzeko batzuk, pastel pintura deitzen zaiona". Pintura mota horretan ez da pintzela erabiltzen, pintura jartzen da azal batean, eta gero eskuekin zabaldu. "Ordur geroztik nire lehentasunak familia (Anitzek 10 urte ditu, eta Eurik 8), enpresa eta pintura bilakatu dira". Ez du bere burua artistatzat hartzen, sortzailatzat baizik. Sortzea baita bere erronka. "Diziplina jakin batean nekatzen naizenean beste zerbait bilatzen dut sortzeko".

Jauregik bere metodoa Sor-kuntza Darwinista gisa definitzen du. Zer ote da hori? Honatx azalpena: "Inguruan daukatenari begiratu, eta pentsatu gabe margotzen saiatzea. Ez da zer margotu, baizik eta zergatik margotu. Intuizioz jardutea, zer margotzen dudan gehiegi pentsatu gabe. Lengoia aurre definituak ahal den gutxien erabiliz, sortzea. Ahalik eta inter-ferentzia gutxienarekin barnean

dagoena atera. Materializatu. Sentsazio primarioenak gorpuztu, gauzatu. Formak, koloreak... Oreka bat bilatzea koadroan. Batzuetan dena lotuta ikusten dut, eta 'ze ondo', pentsatu niretzat. Besteetan, aldiz, 'a ze desastrea'. Baina politena zera da, desastre bat izanda ere, ez dela ezer gertatzen. Metodo honetan garrantzitsuena beldurra-ri bizkarra ematea da". Erretratuetan egoera ezberdina omen da. "Zuhurrago jokatu behar dut. Gertatzen da norbaiten erretratua egin eta bezeroak esatea, 'hau edo beste ez dut atsegin'. Erantzukizuna hor dago beti". Astebete, hamar egun inguru pasatzen du erretratu ba-koitza egiten.

Emazteak sarri lasaitzeko esaten omen dio, bere hiperaktibitate zaintzeko. "Baina 42 urte-ekin ez da erraza. Gainera, alaba txikiena ere mugitua dator, eta hori gertutik zaindu beharreko kontua da, agian nire aktibitaterako joera obsesibo hori ispilu bat delako berarentzat, eta komeni ez...". Bere burua sortzen ikusten du urte batzuk bar-ru. Han edo hemen, baina sortzen.

Joko arauekin oso kritikoa

Sare sozialetan oso aktiboa da, baina kalean apenas. Urnieta lokartuta ikusten du, "eta ni neu ere bai". Urte batzuk atzera halako loraldi soziala egon zela uste du, "baina orain berriro atzeraka goaz. Erabaki politikoe-zerikus handia dutela uste dut. Belaunaldi berrien ustezko ekimen urriaz asko hitz egiten da, baina iruditzen zait ez dutela gustuko gizarteak eskaintzen diena. Arau batzuk jarri dizkiegu, mugi ezin ditzaketen arauak, eta badakite arau horiekin zer irabaztekorik ez dutela. Bazter-tuta sentitzen dira. Zertarako jokatu futbol partida bat, baloia besteek jarri eta golak besteek bakarrik sartu baditzakete? Eta besteak 6 badira, eta beraiek 4. Gazteak zer egiten du egoera horren aurrean? Ba, paso egin gehienetan".

Aspaldi utzi zion politikan parte hartzeari, "herriak ez duelako parte hartzen herriari benetan eragiten dioten erabakietan. Politikaren gaur egungo arauak ez ditut ontzat ematen, oso partzialak eta interesatuak dira, eta paso egiten dut. Alderdi politikoak enpresak dira eta horrela jokatzen

Bere artelanak banaiz.com gunean

Arrakastadun sortzailea da Jon. Koadro asko margotu ditu jada. "Enkarguz, gehienak. Baina tira, ez naiz profesionala, ezta gutxiago ere. Agian epe ertainean izan ninteke, baina oraindik ez naiz". Begirada urrunago jarrita, nahiko luke Ferjau-ko gerentzia lanak pixka bat partekatu eta pinturari denbora gehiago eskaini, "baina batek daki. "Ezkontzako erretratuak eskatzen dizkiote, mota askotako oparitarako, urte mugetarako, "hilda dagoen jendearena ere, eta lan hori ez da batere erraza, ze bezeroak oroitzapen gisa gorde nahi du, eta erantzukizuna handia da halakoetan".

Sare sozialen bitartez lortu du arrakasta gehien, eta web gunea ere badauka, ikusi nahi duenarentzat: www.banaiz.com "Nire lanak jartzen hasi nintzen, eta eskaerak biderkatu egin dira". Enkarguz lan egiteak kontradikzio sortu ote dio? Alegia, sosen truke estilo jakin bateko erretratuak margotu beharra? "Beno, pintura eta materialak ez dira merkeak, lehengaia ordaindu egin behar da. Musikari jardunean geundela, gure gustuko zereginen ari ginen, baina poltsikotik diru dezente jartzen. Pinturan ari naizenetik, garbi dut pinturako dirua pinturatik etorriko dela. Alegia, ez dut nire beste laneko sosik jarriko, pinturan aritzeko. Ona baldin banaiz, lortuko dut aurrera egitea, eta bestela ez. Era naturalean egin nahi dut bide hau. Eta hortxe nago, ahalegin betean".

Arteak ireki ekimena hilaren 23an

'Arteak ireki' ekimena Urnietaraino iritsi da: Euskal Autonomi Erkidegoan tabernetan urte osoan gehienez hamabi kultur ekitaldi egiteko araua erabakitzeotan zirela, neurri horren kontra protesta egiteko bilkura ugari egin dira Gipuzkoan eta Euskadin. Urnietan ere musikari batzuk kezkatuta agertu dira indarrean jarri nahi zuten araudi berriarekin.



dute. Politika egiten da agian, baina egokiak ez diren esparruetan, ez herrian eta herriarentzat. Eta ez dut partida desorekatu hori jokatu nahi. Egungo gazteek ere antzera pentsatzen dutela uste dut, eta beste jokoren bat asmatzeko jardunean ari direla sinetsi nahiko nuke. Teknologia ere sartu da, eta hor ari dira, borrokan. Dagoena irauli nahi dute, beste espazio berri batzuk eraiki asmoz". Gazteen artean pasotismoa dagoela diotenekin ez dago ados. "Zer pasa da, bat-batean belaunaldi oso bat edo bi tontotu egin al dira gaue-rik goi- zera, ala? Ez ba. Ulertu egin behar zaie, baina inori inporta ez zai- gunez, ba haiek berera, eta gu gurera. Isolatu egin dira, baina horren zergatia aztertu beharko genuke, kritikatzera mugatu baino".

Politika minuskuletan egiten da, Jauregiren ustez, "eta ez maiuskuletan. Urnietan badaude sozialki jaiki eta gauza po- tenteak egiteko arrazoiak, baino jai dago. Mikro indibidualis- moaren onuretan erori gara denok, eta kito. Denok ditugu oinetako berriak, jatetxean afal- tzen dugu, parranda lasai egin... Gazte izan ginen gehienok proiektu bat gauzatu ahal izan dugu, baina zer egingo du bizitza proiekturik garatu ezin duen gazteak? Sekulako ikasketak egin eta 25-30 urtera arte 1.000 euro baino gutxiagoko jornala jasotzen duten sistema batean? Hori da konpondu beharreko arazoa. Etorkizunik ez baitauka egungo gazteak. Bi alaba ditut, eta kontsumo sistema honek asko arduratzen nau". Esana geratu da!

KARTELDEGIA:**ESKUBALOIA****SENIOR MAILA****GIPUZKOA 1. MAILA**Munttarpe-Urnieta **29-28****SAILKAPENA**

1	Munttarpe	30 puntu
2	Eibar	24 puntu
3	Legazpi	24 puntu
4	Bergara Soraluze	23 puntu
5	Urnieta	23 puntu
6	Aritzbatalde	20 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA**18:30** Urnieta-Egia / Lar, 23**NESKAK**Leizaran-Usurbil **22-26****SAILKAPENA**

1	Usurbil	4 puntu
2	Egia	2 puntu
3	Munttarpe	2 puntu
4	Leizaran eskubaloia	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA**18:15** Egia-Leizaran / Lar, 23**KADETE MAILA, NESKAK****EUSKADIKO KADETE LIGA**Urnieta-Aiala **23-29****SAILKAPENA**

1	Aiala	14 puntu
2	Errotaberri	12 puntu
3	San Adrian	12 puntu
4	Urnieta	4 puntu
5	Berango	4 puntu
6	Usurbil	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

:- Berango-Urnieta / Lar, 23

JUBENIL MAILA, NESKAK**UDABERRI TORNEOA**Urnieta-Eibar **21-17**Elgoibar-Leizaran **16-17****SAILKAPENA**

1	Leizaran	10 puntu
2	Elgoibar	8 puntu
3	Urnieta	6 puntu
4	Eibar	4 puntu
6	Ereintza	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK**12:00** Urnieta-Ereintza / Lar, 23**10:15** Eibar-Leizaran / Ig, 24**KADETE MAILA, MUTILAK****GIPUZKOA TROFEOA****10:15** Urnieta-Amenabar C / Ig, 24**UDABERRI TORNEOA**Leizaran-Amenabar A **43-29****ASTEBURUKO PARTIDA****16:30** Leizaran-Amenabar B / Lar, 23**SAILKAPENA**

1	Amenabar D	11 puntu
2	Ereintza	10 puntu
3	Leizaran	8 puntu

KADETE MAILA, NESKAK**GIPUZKOA TROFEOA****18:00** Leizaran-Pulpo / Lar, 23

"Euskal Ligan jokatzuz, asko ikasten ari gara"

AMAIA MILLADO, NAGORE CALVO, HAIZEA OLARIA, XABIER DE LA MOTA

Kadete mailako Urnieta KE taldearekin Euskadiko Liga jokatzuz ari dira. Jauzia dago, handia, kirol mailan. Baina liga zail horretan ere garaipenaren zaporea dastatu dute

Amaia Senperena URNIETA**Zer da zuentzat Euskadiko Ligan aritzea?**

Amaia Millado: Lan asko egin dugu, prestaketa saio asko izan dira. Azken partidatan zaletuen laguntza oso handia izan da, gainera.

Nagore Calvo: Euskadiko Liga hastearekin batera aurkarien mailak gora egin du eta hori asko antzematen da. Hala ere, espero genuena baino hobeto gabilta; oso gustura gaude. Oso ondo pasatzen dugu, eta hori da garrantzitsuen.

Zuen helburuetako bat hauze zen?

Xabier de la Mota: Bai, nesken helburua horixe zela esango nuke nik. Eta baita klubaren helburua ere. Iaz igoera lortzeko sailkapen faseraino iritsi ginen. Igoera ez genuen lortu, baina aurrean posible izan da.

Nagore Calvo: Nik ez nuen horrelakorik espero. Aurten hasi naiz Urnieta KE taldean. Berria naizenez, ez nuen honaino iritsiko ginenik espero, eta oso gustura nago.

Amaia Millado: Hasieran partidak jokatu eta ondo pasatzera genduz, baina helburua geroz eta gertuago ikusi dugunean indar gehiagorekin jokatu dugu. **Igoera lortuta, zaletu gehiago gerturatu al da zuen partidatarara?**

Haizea Olaria: Bai, zaletuen aldetik zortedunak gara. Herriki-deak beti hurbiltzen dira, eta izugarri animatzen dute.

Mutlen taldeekin alderatuz, jende gehiago ala gutxiago hurbiltzen da?

Xabier de la Mota: Aurten senior mailako nesken talderik gabe geratu gara eta ezin dugu alderatu. Adin txikietan ikusleko kopurua parekatuta dago. Gure kasuan, igoera lortzeko deialdi berezia egin genuen eta zaletuek ondo erantzun zuten.

Egia da senior mailako mutilen partidatarara jende gehiago hurbiltzen dela, baina ez mutilak direlako, baizik eta senior



Euskal Ligan aritzen den Urnieta KE taldeko lau ordezkari. AIURRI

"EUSKAL LIGAN JARRAITZEA LORTUKO BAGENU, POZGARRIA LITZATEKE"

AMAIA MILLADO

mailan dagoen talde bakarra delako.

Zuen arteko giroa nolakoa da?

Amaia Millado: Oso ondo moldatzen gara, partidatan elkar lagunduz eta animatuz aritzen gara. Egia esan, talde giro ona dago.

Entrenatzaileak ere lagunduko zuen igoeran, ezta?

Nagore Calvo: Noski! Irakasteko garaian, eta baita gauzak gaizki doazenean ere, animoak emateko hortxe izaten dugu.

Euskadiko Ligan zer nolako maila dago?

Haizea Olaria: Askok nabaritu dugu aldaketa. Lehen ere maila ona zegoen, baina lehia parekatua zen. Orain askoz ere gehiago kostatzen zaigu partida irabaztea, edota berdintzea. Ikasketak prozesuan gaude, partida hauetan asko ikasten ari garelako.

"EUSKADIKO ONENEN AURKA MAILA BERETSUAN ARITZEA GARRANTZITSUA DA"

XABIER DE LA MOTA

Xabier de la Mota: Euskadiko onenen aurka jokatzuz ari gara. Konturatzea eta ezberdintasun handiegirik ez dagoela ikustea garrantzitsua da. Haizeak dioen moduan, asko kostatzen zaigu, baina hori normala da. Urnietako talde bat Euskadiko hiru onenen kontra jokatzuz aritzea eta ia-ia garaipena lortzea mundiala da.

Nagore Calvo: Horrelako mailan zabilazanean, motibazioa askoz handiagoa da. Nik askoz hobeto pasatzen dut. Askok di-bertigarriagoa da.

Garaipena zer den ere jakin badakizue...

Xabier de la Mota: Oraindik bigarren buelta osoa geratzen da eta ezusteko gehiago ematea espero dut. Gainera, asko ikasten ari direla konturatzen ari naiz. Espainiako Selekzioan edo Euskadiko Selekzioan aritzen

diren jokalariei aurka jokatzeko hori dakar.

Amaia Millado: Ez genuen espero, baina Euskal Liga n lehen partida irabazi genuenean poza handia hartu genuen.

Lanaren fruituak.

Xabier de la Mota: Bai. Eta esan beharra daukat prestaketa saioetara denak etortzen direla. Hori ez da ohikoena. Talde honen indargunea horixe da, oso talde langilea dela. Eta bat eginda daudela. Adin honetan hori ez da normalena izaten.

Ingurukoek zer esaten dizute?

Xabier de la Mota: Dohaiak badituzte, eta determinazio ikaragarria. Beste talde batzuei begiratuz gero, batzuk galtzen hasi orduko amore ematen dute. Baina talde honek ez du inoiz amore ematen, eta hori oso garrantzitsua da. Sailkapena lortu genuen partidatan galtzen hasi ginen, baina gogor saiatu ziren. Eurengan sinetsi eta partida aurrera atera zuten. Adin horretan gaitasun hori izatea, oso talde gutxiren esku dago.

Datorren denboraldiari begira, zer?

Amaia Millado: Lortzen ditugun emaitzen arabera izango da, baina gure helburua ondo pasatzea eta gehiago ikastea da. Horrela arituz gero Euskal Ligan jarraitzea lortuko bagenu, pozgarria litzateke.

Zer esango zenioke elkarriketa irakurtzen egon daitekeen neska gazteari? Eta zaletuei?

Nagore Calvo: Gure artean harreman oso ona dugula eta guztiak ere elkar laguntzeko prest izaten garela.

Amaia Millado: Merezi duela esango nieke. Zerbait ezberdina da.

Xabier de la Mota: Urnietaren tamainako talde bat Bilbo, Eibar, Ermua eta hiri handietako taldeekin lehiatzen ari gara oso polita dela iruditzen zait. Gutxitan gertatzen da, eta aurrean urnietarrak hori bizitzen ari dira. Pozik egoteko modukoa da, eta kluba ere oso harro dago. Ez dakit zenbat denbora pasako den berriz ere UKEko talde bat honaino iristen ikusteko. Bien bitartean, disfrutatu beharra dago.

Gainera, taldeko hamabi jokalariek lau Euskadiko selekzioarekin jokatzeko deitu dituzte. Taldeaz eta jokalariez zerbait esan nahi du horrek.

Sei jardunaldiren faltan igoera eskura dute

Euskaldunako lehen taldea Erregional Preferente mailan denboraldi ikusgarria egiten ari da. Hogeita lau partidatan hogeitaz garaipen eta bi berdinketa eskuratu ditu. Sei jardunaldiren faltan, bigarren sailkatuari hamar puntuko aldea ateratzen dizkio

Erredakzioa ANDOAIN
Ohorezko Maila gertuago dago, joan zen asteburuan hogeigarren garaipena lortu eta gero. Estatistikari begira jarritz gero, aurkaririk ez duela erakusten ari da Andoaingo taldea. Sendo ari da lidergotzan, denbora luzez goialdean egoteak urduri ez duela jartzen erakutsiz. Aste Santua iritsi aurretik lau jardunaldi jokatu dira, eta denbora tarte horretan igoera lortzea eskura egon daiteke. Azken txanpa asteburu honetan hasiko da. Ubitarte zelaian Santo Tomas taldea hartuko dute urdinek.



Lehen taldea. SDEUSKALDUNA

Dunboa, Gure Txokoa eta Touring izango dira hurrengo aurkariak. Etxean jokatu duten azken partida Santa Krutz jaieran izango da. Ospakizun modukoa izan dadila jokalarientzat eta zaletuentzat. Igoera lortuta legokeen seinalea litzateke.

EUSKALDUNAK ASTE SANTUAREN AURRETIK DAUDEN LAU PARTIDATAN IGOERA LOR DEZAKE

Ainhua Jauregi garaile

Joan zen igandeko Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan onena izan zen urnietarra. 200 lasterkari irten ziren, horietatik emakumezkoak 19. Lokatza eta harri irristakorrak izan zituzten arerio. Ez zen eguneko urnietar protagonista bakarra izan. Proba hasi aurretik Gaspar Esnaola urnietarra omendu zuten. Sari banaketa ekitaldian ere parte hartu zuten.



Arangoitira irteera antolatu du Zanpatuz mendi elkarteak

Datorren apirilaren 6an 15 kilometro inguruko mendi zeharkaldia egingo dute. Izena emateko epea zabalik

Erredakzioa URNIETA
Irunberriko kanpina, Arangoitiko gailurra (1351m) eta Leireko Monasterioa zeharkatuko dituzte ibilbidean zehar: "Nafarroako Ipar-ekialdeko Zarikieta mendilerroa zeharkatuko da.

Igoera eroso da, pixka bat ibiltzen den edonork egiteko modukoa. Arangoitiko gailurrak, Zaraitzu arana iparraldera, eta Esako urtegia hegoaldera ikus-teko aukera paregabea eskaintzen du".

Izen-ematea zabalik
Apirilaren 2a baino lehen eman behar da izena Ikasmin Akademiaren eta Kantoi tabernaren. Izena emateko une berean egin behar da ordainketa. Bazkideek 5 euro, eta bazkide ez direnek 10 euro.
Joan etorria autobusez egingo dute, datorren apirilaren 6an. Mendizaleak Matxo tabernaren paretik irtengo dira, goizeko 07:30ean hasita. Mendi irteera egin eta gero, itzulera arratsaldeko 18:00ak aldera izango dela aurreikusi dute.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ARETO FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA

Gure Txokoa-Urnieta	4-0
Trintxerpe-Euskalduna	1-3

SAILKAPENA

1	Euskalduna	62 puntu
2	Touring	52 puntu
3	Mundarro	48 puntu
4	Baskonia	46 puntu
5	Billabona	41 puntu
12	Urnieta	25 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00	Urnieta-Touring / Lar, 23
17:45	Euskalduna-S.Tomas / Lar, 23

ERREGIONAL MAILA

KOPA

Intxurre-Euskalduna	1-1
---------------------	-----

SAILKAPENA

1	Antigua	6 puntu
2	Euskalduna	4 puntu
3	Bosteko	3 puntu

GORENGO MAILA, NESKAK

IGOERA FASEA

EMAITZA

Urnieta-Beti Gazte	7-0
--------------------	-----

SAILKAPENA

1	Urnieta	15 puntu
2	Intxaurdi	15 puntu
3	Aloña Mendi	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Urnieta-Intxaurdi / Lar, 23
-------	-----------------------------

KOPA

EMAITZA

Euskalduna-Oiartzun	2-2
---------------------	-----

SAILKAPENA

1	S.Tomas	12 puntu
2	Euskalduna	7 puntu
5	Bergara	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Bergara-Euskalduna / Lar, 23
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA

OHOREZKOA

Aretxabaleta-Euskalduna	3-1
-------------------------	-----

SAILKAPENA

1	Mondragon	50 puntu
2	Billabona	49 puntu
11	Euskalduna	33 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna-Aloña Mendi / Lar, 23
-------	----------------------------------

KOPA

Euskalduna-Usurbil	1-2
Urnieta-Baskonia	2-4

SAILKAPENA

1	Usurbil	16 puntu
2	Mundarro	13 puntu
3	Sanse B	11 puntu
5	Urnieta	11 puntu
7	Euskalduna	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:30	Urnieta-Mundarro / Ig, 24
14:15	Sanse B-Euskalduna / Ig, 24

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Antiguoko	0-6
----------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Martutene-Euskalduna / Ig, 24
-------	-------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

KOPA

Euskalduna-Goierri A	3-2
Urnieta-Intxaurdi A	0-1

SAILKAPENA

1	Mundarro	19 puntu
3	Euskalduna	13 puntu
7	Urnieta	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:00	Euskalduna-Mundarro / Lar, 23
13:30	Amara Berri-Urnieta / Ig, 24

KADETE MAILA, MUTILAK

KOPA, 5. MULTZOA. PARTIDA

12:00	Urnieta A-Kostkas B / Lar, 23
-------	-------------------------------

KOPA, 7. MULTZOA. PARTIDAK

11:00	Idiazabal A-Urnieta B / Lar, 23
12:30	Euskalduna-Usurbil / Lar, 23

ARETO FUTBOLA

EMAITZA

Anoeta-Euskalduna	5-4
-------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

15:00	Euskalduna-Gaintxu / Lar, 23
-------	------------------------------



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 21

ANDOAIN Erakusketa

"Herria herri egin zuten emakumeak" argazki-erakusketa Basteron ikusgai. *Apirilaren 6ra arte.*

URNIETA Argazki lehiaketa

Lehiaketak Urnietako sei leku esanguratsuren argazkiak ateratzean datza. Argibideak 9. orrialdean. *Epea: Ekainak 24.*

ANDOAIN Lehiaketa

Inauterietako argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Sari bakarra, 250 eurokoa. *Lanen aurkezpena: Bastero.*

ANDOAIN Solasaldia

Euskaraldiari buruzko solasaldia, besteak beste, Kike Amonarrizekin. *19:00, M.Ugalde kultur parkea.*

ANDOAIN Kontzertua

Flamenko ikuskizuna. Informazio gehiago, 8. orrialdean. *20:00, Bastero.*

OSTIRALA 22

ANDOAIN Aurkezpena

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeen hautagaitzaren aurkezpena egingo du EAJ-PNVk, Marijose Izagirre, Markel Olano eta Joseba Egibarren parte-hartzearekin. *18:30, Bastero.*

URNIETA Korrika

Korrikako postua ipiniko dute. Informazioa zabalduko dute. *19:00, Zubitxo plaza.*

URNIETA Zinegoak

Gaylesbotrans filmak ikusgai. *22:00, Lekaio.*

LARUNBATA 23

ANDOAIN Tailerra

Berdintasun Kontseilua sortu ala ez erabakitzeko bilera. *10:00, Bastero.*

ANDOAIN Kontzertua

Bad Sound eta Jah Initti zuzenean. *22:00, Gaztetxea. 6 euro.*



Ikuskizunean agertzen diren protagonista nagusiak. ONBEAT

ANDOAIN Simbatik Kiarara musika eta dantza ikuskizuna

Madriren urteak eman dituzte "El rey Leon" ikuskizuna eskaintzen. Onbeat konpainiak estatuan zehar hainbat emanaldi antolatu ditu. Tolosan, esaterako, arrakasta handiarekin eskaini zuten. Ikuskizun musikalak 80 minutuko iraupena du. *20:00, Bastero. Martxoak 22, ostirala. 12 euro.*

IGANDEA 24

ANDOAIN Dantza

Gipuzkoako eskolen erakustaldia. *12:00, Bastero.*

URNIETA Haur antzerkia

Tomaxen abenturak. Korrika kulturala. *17:30, Sarobe. 3 euro.*

ASTEAZKENA 27

ANDOAIN Hitzaldia

"Iruña-Veleia. Zergatik ez dute argitu nahi?", Elexpuren eskutik. *19:15, Irunberri elkarte.*

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Plenoa

Udal batzarraldia. *19:00, Udaletxea.*

OSTIRALA 29

ANDOAIN Aurkezpena

Udal hauteskundearen hautagaitzaren aurkezpena egingo du EH Bilduk. *19:00, Bastero.*

LARUNBATA 30

ANDOAIN Tailerra

Ekonomia feminista, Martxoak 8ko egitarauaren baitan. *09:30, Urigain.*

ANDOAIN Jardunaldia

Elkarbizi elkartearen eta Oreki fundazioaren eskutik, "Bizikidetzaren aldeko memoria" jardunaldia Etiker, Gogoan, Foro Soziala, Argituz eta Zabaltzen ekimenen parte-hartzearekin. Moderatzailea: Inesa Ariztimuño (Baketik). *10:30. Urigain.*

ANDOAIN Ikuskizuna


"Go!Azen 5.0." ikuskizuna Andoainera dator. Sarrerak agortuta. *17:00, 19:00. Bastero.*

IGANDEA 31

URNIETA Korrika

Korrikaren etorrera girotzeko jarduerak iragarri dituzte. San Juan plazan pintxoez eta sagardoaz gozatzeko aukera izango da. *11:30, Kalejira herrigunean. 12:00, Egape DTren saioa plazan.*

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Mula

Larunbata, 23: 19:30; 22:00.
Igandea, 24: 19:30.
Astelehena, 25: 19:30; 22:00.

Como entrenar a tu dragon 3

Lar, 23: 17:00.
Ig, 24: 17:00.

URNIETA

SAROB

El reino de los elfos:

Igandea, 31: 17:00.



SINOPSIS



Mula

Zuz.: Clint Eastwood. **Herr.:** AEB (2018). **Generoa:** Drama. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Clint Eastwood, Bradley Cooper, Dianne Wiest, Laurence Fishburne. **Iraupena:** 116 minutu.

Clint Eastwooden lanik berriena

Earl Stone adinean gora doan gizonezkoak arazo ekonomikoak ditu, eta Illinois aldean drogra garraiatzen lan egitea onartzen du. Diru erraza, senideei laguntzeko

baliatzen duena. Baina DEAko polizia bat segika izango du. Drama bat izanik ere, umore ukituak baditu. Oinarrian iragana segika duen pertsonaren bizitza da.



ZUMEATARRA

Mus txapelketa Zumeatarran

Zumeatarra elkarteko mus txapelketaren finala jokatu zen martxoaren 15ean, eta irabazleak Manuel Perez eta Jose Luis Arranz bazkideak izan ziren finalean Iñaki Gurrutxaga eta Iñaki Recio garaitu ostean. Elkartearen hurrengo erronka Santa Krutz jaietako sagardo txapelketa antolatzea izango da.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Clara
Dagoeneko 8 urte bete dituzu. Azkar pasa dira baina zenbat gozatzen dugun elkarrekin!! Etxekoak.



URNIETA
Euri
Martxoaren 20an 8 urte bete zituen Euri Jauregi Crespok. Asko maite zaitugu. Etxekoak eta lagunak.



URNIETA
Adara
Martxoaren 25ean 11 urte beteko ditu. Zorionak guapisima! Ondo pasa. Aita, ama eta Laineren partetik.



ANDOAIN
Bernarda
Martxoaren 24an Bernardak urteak beteko ditu. Zorionak Eizagirre sendiaren eta etxekoan partetik.



ANDOAIN
Asier eta Unai
Martxoaren 26an 14 urte. Zorionak bihotz-bihotzez!!! Ondo pasa! Muxu handi bana amona eta aitonen partetik.



ANDOAIN / ADUNA
Axel eta Amane
Axelek eta Amanek 6 urte beteko dituzte apirilaren 12an. Ondo ospatu eguna! Muxuak etxekoan partetik!

Tomaxen abenturak

Larunbata da, eta Tomax eta Muxi ikastolan zigortuta daude. Ohar bat aurkituko dute: "Andereño Koro bahitu dugu". Hortik aurrera izugarrizko abenturak biziko dituzte Koro aurkitu arte. Horixe da "Tomaxen abenturak, espian eguna" familia ikuskizunaren sinopsia. Igande honetan Urnietako Saroben familia osoarentzako ikuskizuna eskainiko dute, 17:30ean hasita.



Jabekuntza eskola

"Jabekuntza Eskola harremanetarako eta esperientziarako espazioa da. Andoingo emakumeen arteko sareak sortu nahi ditugu, elkar ezagutu, lagundu, topatu eta disfrutatzeko. Etorri Jabekuntza Eskolara!". Horixe dio eskuorriak. Doakoak dira ikastaro guztiak. Informazioa: 943 300 830. berdintasuna@andoain.eus.



Bizikidetza eta memoria

Bizikidetzaren aldeko jardunaldia antolatu du Elkarbizi taldeak, datorren martxoaren 30erako. 10:30ean hasiko da, Andoingo Urigainen. Etiker, Gogoan, Foro Soziala, Aragituz eta Zabaltzen ekimenetako ordezkariak parte hartuko dute. Moderatzailea: Baketik. Izena emateko epea martxoaren 28an amaituko da: ganboiturri@gmail.com.



UDAL HAUTESKUNDEAK



AIURRI

Sozialisten agerraldia

Andoingo PSE-EE alderdiak Adarra aldizkariaren zenbaki berria banatu du herrian, eta bertan agintaldiaren balorazioa egin dute. Argitalpena eta Udal jarduera azaltzeko prentsa agerraldia eskaini zuten aurreko astean.



AIURRI

Hitzaldia eta aurkezpena

Barandiaran Espainiako kongresuko EAJ-PNVko diputatua da, eta aurreko astean pentsioei buruzko hitzaldia eskaini zuen Basteron. Jeltzaleek ostiral honetan Andoingo hautagaitza aurkeztuko dute Basteron, 18:30ean hasita.



EHBILDU

Hautagaitzaren aurkezpena

Andoni Alvarez buru duen EH Bildu koalizioak hautagaitza osoaren aurkezpena egingo du martxoaren 29an, Bastero Kulturgunean. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da ekitaldi irekia.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 23 eta igandea 24
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 23 eta igandea 24
TANCO: Idiazabal, 39.
943 550 942. Urnieta.
GAUEZ, BI HERRIETAN: ALDABE.
943 336 022. Perkaiztegi, 8. Hernani.

Dantza tailerra Andoainen martxoaren 26an

Aiurri komunitatea
Andoingo Mintzalagunak

Dantza tailerra Olagain auzoan, Urkik duen egoitzan izango da. Arratsaldeko 18:30ean hasita. Saio irekia eta doakoa izango da, baina komeni da aldeztu aurretik euskaltegia izena ematea. Plaza dantzak landuko dituzte, eta tailerra 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta baita haurren laguntzaileentzat ere. Izen-ematea AEK euskaltegian edo telefonoz deituta: 943 591 704 / 662 132 558.



Maddalen Kortajarena. MKORTAJARENA

Maddalen Kortajarena garaile aurtengo Diaporaman

Lehiaketako azken txanpara iritsi ziren hiru hautagaien artean, Thailandiara egindako bidaiaren diaporama izan da irabazlea. Corbelle eta Aldai izan dira aurtengo lehiaketako beste bi finalistak. Kortajarena, berriz, irabazlea.

AZKENA



Nerea Tuduri andoaindarra, berak idatzitako liburua eskuetan duela. AIURRI

Tuduriren kontakizun laburrak eta poesiak

Nerea Tuduri sorabillatarrak "Inviernos frente al mar" poesia liburua plazaratu du. Poesia eta kontakizun laburrak nahasten ditu, eta horietan hausnarketa pertsonalak luzatzen dizkio irakurleari. Ikusmina sortu du ingurukoen artean

Xabier Lasa ANDOAIN

Badira aste batzuk liburua plaza- ratu zenuela. Nolako harrera jaso du orain arte?

Bikaina. Autoedizioa da, niri egokitzen ari zait promozio-kanpaina egitea eta Andoainen bakarrik zabaltzeko da orain arte, baina bigarren edizioan doa. Poesiak, oraindik, atzera bota arazten du zenbait jende, baina nik esaten diet aurre iritziak baztertzeko eta saiatzeko.

Irudikatu ere egingo ez nuen jendea irakurtzen ari da, eta onak dira egin dizkidaten kritikak. Baten batek esan dit irakurketak barruak mugi arazi dizkiola. Beste batek, hiru txandatan irakurri duela, eta aldi bakoitzean sentimendu ezberdinak eragin dizkiola.

Bada zeharo harritu denik liburua plazaratu dudalako. Lehen, Ganbara tabernako zerbitzaria izateagatik ezagutzen ninduten askok, eta orain "idazlearen" etiketa jarri didate. Grazia ematen dit horrek.

Autobiografikoa al da liburua?

Kontakizun laburretan errealtatea eta irudimena nahasten dira. Baina poesian biluztu egin naizela esango nuke. Ukitzen ditudan gai ugari barru-barruko sentimenduetatik irten dira, nire bizipenetatik.

Noiztik idazten duzu?

Sorabillara bizitzera joan arte nire bizitzako lehen zazpi urteak

Gerendiaingo umezurtztegia igaro nituen. Nire lehen zazpi urtetan matematikan ez nintzen batere trebatu, baina irakurri, zirenak eta ez zirenak irakurri nituen: tradiziozko haur ipuinak, Gloria Fuertesena... Hamabi urterekin jada nire gauzak idazten nituen, eta horretan jarraitu dut hartaz geroztik. Liburu honetan biltzen diren poesiak,

nolanahi ere, bizitzako azken aldikoak dira.


Helduko al da bigarren liburua irakurleen eskuetara?

Idazten segitzen dut, eta baiezkoan nago. Dageneko jendearen begietara pretentziosoegia izatearen beldurra uxatu ditut, eta argi daukat gehiago idatzi ahala argitaratzen jarraituko dudala. Modu batera edo bestera jarraituko dut.

Hori bai, nere kabuz egin dut ibilbide osoa. Autodidakta naiz eta oraindik ere idazketaren teknikak lantzea eta garatzea falta zait.

Aurkezpen ekitaldi jendetsua Ernaitza liburutegian

Nerea Rodriguez bere adiskideak egin zituen aurkezpen lanak: "Eskarmendu handikoa da eta badaki ekitaldi bizi eta freskoak egiten; gainera, ondo ezagutzen nau. Aurkezpen ekitaldia liburuaren isla izan zela esango nuke. Xarmangarria gertatu zen aurkezpena. Ezin da gehiago eskatu! Liburuak zaintzen dituzten liburutegia batean ospatu zen, gainera".



Nerea Rodriguez eta Nerea Tuduri Ernaitzako aurkezpen ekitaldian. AIURRI



Liburuaren azala. AIURRI

Andoainen salgai

Ernaitza liburutegian
salgai dago. Instagram
bidez (@versos_
nereatuduri) edo emailaz
eska daiteke ere: nerea.
tuduri@gmail.com.